

AMETS EGITEN DUEN KOMUNITATE BAT ERAIKITZEN ARI GARA

Amets egiten al duzu? Mundu hobe bat amesten al duzu?

Azken hilabete hauetan, pandemiaren ondorioz pairatu dugun nekeak eta makalaldiak sortutako egoerak, normaltasunera lehenbailehen itzultzeko nahiarekin batera, anestesia moduko batean bizitzeko gogoaren tentazioaren aurrean jarri du gure gizartea, bizi izan dugun eta oraindik dirauen giza drama hori gainditzen saiatzeko.

Gure dolu-egunak ez dira amaitu. Gure egunerokotasunean txertatu bizi dira, osasun, ekonomia, gizarte eta politika alderdietan metatutako krisi batean. Bizitza publikoan, krisi hori oso gertuko espazio komunetan gauzatzen da, hala nola osasungintzan, enpleguan, etxebizitzan, hezkuntzan edo gure harreman pertsonalen esparruan.

Munduko egoerak ere latza izaten jarraitzen du, ezin da hori ukatu. Munduko gobernuek interes ekonomiko eta politikoei lehentasuna ematen jarraitzen dute, pertsonen bizitzen gaineratik. Txertoak, truke-txanpon bihurtu dira, guztion ongiarekin edo gizarte-komunitatea osatzen duten pertsonen osasunaren babesarekin zerikusirik ez duten erabakiak hartzeko.

Komunikabideetan edo estatuen agenda politikoetan, ezer gutxi hitz egiten da, edo batere ez, herrialde pobreenak, baliabide gutxien dituztenak, Covid-19tik babesteko premia larriari buruz, gaixotasun horren kontra segurtasuna izan dezaten. Munduko leku batean gertatzen denak gainerako tokietan ezinbestean eragiten duela kontuan hartzen ez duen ahanztura kolektiboak indarrean dirau.

Mundu-mailan, hainbat erronka garrantzitsu ditugu aurrean. Esate baterako, indarkeriatik eta pobreziatik ihesi leku batetik bestera migratzen duten pertsonen exodoak; baliabide gehien eta gutxien dituzten herrialdeen arteko desorekak, elkarren arteko distantzia eta lankidetzan aritzeko eta lotura berriak ezartzeko beharra areagotzen dituztenak; eta natura-baliabideen etengabeko narriadura, klima-aldaketak bizkortuta, gure bizitzak arriskuan jartzen ari dena. Erronka handiak dira, baina estatuen eta herritarren borondate irmo eta politikorik gabe, ezinezkoa izango da haiei heldu eta eraginkortasunez aurre egin.

Ekonomiaren eta digitalizazioaren arloetan globalizatuta dagoen gizarte honetan, gizatasun eta elkartasun globalaren kontzientzia lortzea ahalbidetuko dituzten bide berriak bilatu behar ditugu. Horregatik, gure bizitza gizarte desberdin bat eraikitzea bideratu behar dugu, duguna baino gizarte hobea lortzen saiatu behar dugu, ahalegin horretan amore eman gabe.

Pertsonen komunitate bihurtuko den gizarte eraiki behar dugu, munduan ikuspegi zabal, unibertsal eta global batez bizitzeko, baina herri eta auzotasun kontzientzia galdu gabe, begirada hurbil eta sentibera izanda, lurrian eta egunerokotasunaren eta normaltasunaren bideetan adeitasun eta elkartasun handiagoz ibiltzeko gai izanda, anaitasun eta itxaropen handiagoz jardunda. Beretarrak zaindu eta babestuko dituen komunitatea izan behar du, gizakion familia eta familia horren etxe bateratua zaindu eta babestuko dituen, eta biziari eusten lagunduko diona.

AMESTEN DUEN KOMUNITATE BAT ERAIKITZEA da gure proposamena, bai ikasturte berri hau bizitzeko, bai Frantzisko Aita Santuak proposatzen dizkigun irrikarekin eta itxaropenarekin bat egiteko: mundu osoaren anaitasunerako grina birsortzea pertsona guztion artean, denok osatzen dugun giza familia handi horretako kide. **Amets egiteak** etorkizunerako, eraldaketarako eta aukerak izateko bideak irekitzen dizkigu; **amets egiteak** aukera ematen digu pertsona guztientzat bizimodu desberdin eta hobe baterako itxaropena sortzeko, desiratzeko eta proiektatzeko.

Gure ametsak gure orainean dituzte sustraiak, **honako hauek egitera bultzatzen gaituen konpromisoan:**

- **Amets egiten duen komunitatea sortzea**, pertsona guztien duintasuna eta giza eskubideak **zaindu eta babesten dituen komunitatea**, pertsonen bizitzak aintzak hartzen dituen, jendeari bizitzako prozesuetan laguntzen diona, eguneroko bizitzako egoera bidegabeak salatzen dituen, eta denontzat aukerak eta etorkizun on bat ahalbidetzeko lan egiten duena.
- **Amets egiten duen komunitatea sortzea, Sorkuntzarekin bat eginda bizi nahi duen komunitatea**, denon etxea hobeto zaintzeko kontzientziatzen urratsak ematen ari dena, bere kontsumo-ohiturak berrikusiz eta ekintza xumeak eginda, norberaren buruarekin eta ingurunearekin harmonia hobean bizitzeko.
- **Amets egiten duen komunitatea sortzea, gizarteari egiten dion ekarpenen bidez** bizimodu solidarioagoa eta inklusiboagoa **proposatu eta**

eraikitzen duen komunitatea, pertsonen arteko elkarrizketa eta topaketa-espazioak sortzen dituen, haien aniztasuna kontuan hartuta, konfiantza, adiskidetasuna eta anaitasuna eratzen dituen, eta gure munduan dagoen oinazea, pobrezia, bakardadea eta indibidualismoa aintzat hartu gabe utzi nahi ez dituen.

“Horra hor amets egiteko eta gure bizitza abentura bihurtzeko sekretu zoragarri bat. Inork ez dio bakarrik bizitzako borrokari aurre egin. (...) Komunitate bat behar da, eutsiko gaituen komunitate bat, lagunduko gaituen komunitate bat, elkarri aurrera begiratzen laguntzeko komunitate bat. Zein garrantzitsua den elkarrekin amets egitea!”¹. **Egiten al duzu amets? Mundu hobe bat amesten al duzu?**

¹ FRANCISCO, *Fratelli tutti* entziklika-gutuna, 8.